



BARREN

TOKIKOM

Pottoka, euskal mendietako ondare bizia

Antonio Gonzalez, zaldi hazlea



salgai
2. fasea

etxe**g**ain
BIZIGUNEA

ARGITU ZURE IKUSPEGIA ETA
ETOR ZAITEZ **etxegain**-ERA

★
2 logelako
etxebizitzak
140.000 €-tik
hasita

elgoibar

WWW.ETXEGAIN.COM

Etxegain-en dena da altua,
prezioak izan ezik.



2 ETA 3 LOGELAKO 25 ETXEBIZITZA

IKUSPEGI ZABALAK DITUZTEN
TERRAZAK

TXOKOA DUTEN BEHEKO SOLAIRUAK
GARAJERA SARRERAREKIN

GARAJEA ETA TRASTELEKUA AUKERAN

GE grupo eibar
inmobiliaria

E: comercial@grupoeibar.com
San Frantzisko 32, behea • 20870 Elgoibar

943 31 66 11
689 66 08 01

OBRA FINANCIAUA POR
bankoa CAE
Grupo
Credito Agrícola

‘Elgoibarko Berbetia’ ikastaroa

Gidaria: Jesus Mari Makazaga filologo eta doktorea



Azaroak 6, 13, 20 eta 27
18:30-20:30

Kultur Etxeko hitzaldi gelan

IZENA EMATEKO

www.barren.eus / 943 744 112 (Ainhoa)
barren@elgoibarkoizarra.eus

IZENA EMATEKO AZKEN EGUNA

Urriak 31, osteguna

PREZIOA

30 euro (Elgoibarko Izarrako bazkideek, 27 euro)



Antolatzailea



Laguntzailea



Elkartzaileak



JUAN LUIS MUGERTZA

Idazlea



Orduko Meka

buzoa zikintzen, besteak beste, Cid, Iturricastillo, eta Elortzaren begiradapean. Gainontzeko jakintzagaiak ikasteko (Kimika, Bastidarekin; Teknologia, "Papirekin"; Matematika, Trincadorekin...), ahalegin txikiagoa egiten genuen, sinetsita bakenuen zenbakiek, eta formulek ezer gutxi balioko zutela lan egiteko, eta bizi izateko. Hizkuntzak Lengua española, San Millánekina, eta ingelesa *nothing* ez. Hararik ere, titulu akademikoak atek zabalitzen lagundu arren, ez zen ezinbestekoa (tituluena moda gerokoagoa da). Sasoi hartan, Elgoibarren lan eskaintza handia zegoen, eta askok "karrera" bukatu aurretik, lanean hastea erabakitzen zuten, enpresakoek ez baitzuten, egun bezala, egunkarietan propagandarik egiten "*Lehen mailako ofizialak behar ditugu CNC tornuan lan egiteko*", ezta curriculum vitae-rik eskatzen ere. Gustuko tailerra aukeratu

(Arozena, Zubacor...), arduradunaz galdetu, eta hurrengo egunean lanera, inolako probarik egin gabe, norberak erositako buzo urdina besapean hartuta, pozarren. Eta horrela batzuek eskarmentu handiko beste langile baten arrimuan, ofizioa ikasi bitartean (gero, hirugarren, bigarren, eta lehen mailako ofiziala izateko), beste batzuek bizikletaz ibiltzen jakitea derrigorrezkoa zuten (ingelesa baino garrantzitsuagoa), lan-munduan lehenengo kilometroak egiteko, eta egarritutako lankideak asetzeko, tailerretik *Maalako* iturrira txirringaz joaten baitziren txorrota azpian jarritako txongila betetzera. Hori bai, beti begi bat zelatan, badaezpada, Oraikon egondako neskatxoarekin tope ez egiteko, eta barregarri ez gelditzeko. Izan ere, orduan, eskuak zikin izatea pega-pega eginda dantzatzeko, eskola txarrekoa zen, eta gu eskola onekoak ginela sinetsita geunden.

Gure gazte denboran, ikasketak oso laburrak ziren (gure tamainakoak). Gutxi ziren (neure inguruan, behintzat) maleta hartu, eta hiriburuetara jotzen zuten mutilak goimailako ikasketak egitera (ekonomia zegoen modan, orduan). Ohikoena kuarter ondoko lanbide Heziketara (Mekara) oinez joatea zen, eta ofizio bat ikastea (fresatzailea, tornularia, ajustadorea...), probetxuzko gizona izateko. Orduantxe ikasi genuen limari ondo eusten, barauts kamutsa zorrozten, eta taladrinaren zipripitzinaz

"Tailerretik Maalako iturrira txirringaz joaten ziren txorrota azpian jarritako txongila betetzera"



BARREN

ARGITARATZAILEA:

ELGOIBARKO IZARRA
Euzko Legeburu Batzarreko Argitaletxea

Kalebarren plaza, 2 - 20870 ELGOIBAR

943 744 112

Publizitatea: 943 743 704

barren.publi@elgoibarkoizarra.eus

barren@elgoibarkoizarra.eus

www.barren.eus

BARRENek bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarki lekuz aldatzeko eskubidea. BARRENek ez du bere gain hartzen Iritzia, Hitz eta klik eta eskuittzak ataletan adierazitako enantzikizunak. **KOORDINATZAILEA** Ainhoa Andonegi **KAZETARIAK** Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia **HIZKUNTZA ARDURADUNA** Ainara Argoitia **PUBLIZITATEA** Leire Rubio **MAKETATZAILEA/DISEINATZAILEA** Zalao Arnaiz **ATARI DIGITALEKO ARLO TEKNIKOAREN ARDURADUNA** Aitor Lauzirika **ADMINISTRARIAK** Amaia Arrizabalaga, Nerea Osoro **KOLABORATZAILEAK** Ibon Serrano, Eire Vila, Manu Sanchez, Iosu Juaristi, Iñigo Lamelas, Edurne Izagirre, Paula Heras, Eneiz Ezenarro, Ander Soraluze, Ane Astiazaran, Irtati Agirreazaldegi, Jone Olaizola, Juan Luis Mugertza, Izaro Etxegibel, Iñigo Otaño **INPRIMATEGIA** Geru Koop.E. **TIRADA** 4.885 ale **LEGE GORDAILUA** SS-1.038/92 **ISSN** 1138-1855

BABESLEA:

ELGOIBAR
UDALA
AYUNTAMIENTO

LAGUNTZAILEAK:

MENDARO
1981

Gipuzkoako Foru Aldundia

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCOKULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

(Hezkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua



BARRENeK ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dute. Ez ahaztu izen-abizenak, NANa eta telefonoa jartzea. Bidali helbide honetara: barren@elgoibarkoizarra.eus

► ESKERRIK ASKO

Azken aste hauek oso gogorrak izan dira gure familiarentzat. Joan zaigu aita, eta zauria odoletan daukagu oraindik. Hala ere, berandu baino lehen, familikook bihotzez eskertu nahi genuke jaso dugun erantzuna eta arreta.

Alde batetik, beilatokira zein elizara etorri zineten guztioi. Jende mordoa izan da, eta zaila da guztioi banaka eskerrak ematea, baina izan bitez lerro hauek gure esker onaren erakusgarri. Baita hainbat lekutatik mezua bidali zenuten guztioi ere.

Bestetik, esker berezia eta besarkada handi bat eskaini nahi genieke Jon Lizarralderi eta Haritz Euskal Dantza taldeari, bai hiletan zein ezpata dantzaren egunean egindako omenaldiak izugarri hunkitu gintuelako. Blanka Salegiri, izan zituen hitzengatik. BARREN, *Diario Vasco* eta *Noticias de Gipuzkoa*-ko kazetariei, aitaren lana goraiatzeagatik. Edu Arrillaga 'gure

anaiari'. Errenteriko kuadrillari. Gure Bide elkarteko kideei. Errotazaleen elkarteari. Jose Mari Izaga, Juanjo Barrio, Luis eta Ninesi. Koruko lagunei...

Ahaztuta geratu zaretenoi, barkatu. Jende asko izan zarete eta burua ez dugu unerik egokienean.


Guztioi, mila esker.

Lizarralde Pikaza sendia

ESKUTITZEI BURUZKO ARAUDIA

BARRENen edozein gutun argitaratu ahal izateko, honako baldintza hauek bete beharko ditu nahituez:

1. Eskutitz guztiak identifikatuak egon behar dute: izen-abizenak, telefono zenbakia eta NAN zenbakia derrigorrezkoak dira.
2. 1.500 karaktere izan behar ditu gehienez eskutitzak.
3. Eskutitzak izen-abizenen inizialekin edota izen-abizenekin argitaratuko dira. Ezizenarekin ezingo dira sinatu gutunak. Onartu egingo ditugu identifikagarriak diren taldeak: "Ikastolako irakasleak", esaterako. Bestalde, sinatzailearekin batera beste lagun batzuk ere daudenean, hauek ere identifikatuta egon behar dute.
4. Pertsona eta erakundeek gutun-egilearen izen-abizenak jakiteko eskubidea izango dute gutun horretan euren izena aipatu edo erreferentziaren bat egiten bada eta gutuna inizialekin sinatuta badago.
5. Ez dira onartuko: biraok, gutun iraingarriak eta errespetu faltaz idatzitakoak, buzoneatzeko edo kale banaketa egiteko idatzitako idazkiak, pertsona eta erakundeetako zuzenduriko mehatxuak...
6. Ez dugu gaztekeraz datoren eskutitzik argitaratuko.



Eduardo Iraegi Zamakola

2019ko urriaren 10ean hil zen, 93 urte zituela. Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak, bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.

**Izan zarenagatik
eta erakutsi duzunagatik
ez zaitugu inoiz ahaztuko.**

Sendiak





Zuen kexak, galderak edo txaloak bidaltzeko: barren@elgoibarkoizarra.eus - 943 744 112



Maalako parkearen estalpeak ez ditu jarlekuak estaltzen: "Euria egiten duenean Maalako parkeko jarleku guztiak busti egiten dira, bai kale aldekoak eta baita ibai aldean dagoen jarleku luzea ere. Euria egiten duenean umeekin hara joatea besterik ez zaigu geratzen, eta guraso guztiak zutik egon behar izaten dugu, ez dagoelako esertzeko gune estalirik. Ezin al da estalpe hori moldatu? Parke estali bat egin zuten, baina ez ditu herritarren beharrak asetzen".



Aita Agirre plazan ez dago motoentzako aparkalekurik: "Aita Agirre plazan ez dute jarri motoak aparkatzeko gunerik. Hori dela eta, aparkalekuetatik kanpora aparkatzen dut motoa, autoei ahalik eta traba gutxien egiteko eta aparkalekurik ez kentzeko. Nik uste dut Elgoibarren nahikoa moto egongo dela motoentzako aparkalekuak jaritzeko. Bestela non aparkatu behar dugu moto gidariok, aparkalekuetatik kanpo ala autoentzako aparkalekuetan?"



Pedro Migel Urruzuno kaleko zabor edukiontzia gainezka egoten dira: "Pedro Migel Urruzuno kalean komertzio asko dago, eta agian horregatik izango da, baina zabor edukiontzia gainezka egiten dute askotan. Bizilagunok ezin izaten dugu zaborra bota, baina hori baino okerragoa da ematen duen itxura. Gauza bera gertatzen da Aita Agirreko edukiontziekin ere. Herriko erdiguneak zikin itxura hartzen du. Edukiontzia sarrago hustu beharko liratekeela uste dugu".

Aita Agirre kulturguneko komunetan ez dago argirik: "Aita Agirreko lehen eta bigarren solairuko komunetan ez dago argirik. Kanpoaldean bai, baina barruko komunetan ez. Kulturgunea zabaldu zutenetik horrela dago, eta uste dut dagoeneko egon dela hori konpontzeko aukera. Horrez gain, komunak emakume edo gizonezkoentzat diren zehaztu gabe daude".

Elgoibar eta Oñati bizikletaz lotuko dituzte, preso adinduak etxeratzeko eskaerarekin

Urriaren 27rako Elgoibartik Oñatirainoko bizikleta-martxa antolatu du Sarek, Sebas Etxaniz eta Joseba Arregi euskal presoek etxeratzea eskatzeko. Bizikleta martxa 10:00etan abiatuko da Elgoibarko plazatik; 11:00etan Bergarara ailegatu da eta 13:00etan Oñatin bukatuko dute ibilbidea, Foruen plazan. Etxanizek 76 urte ditu eta 73 Arregik, eta aurkezpenean salatu zuten legeak 70 urtetik gorako presoek baldintzapeko askatasunerako eskubidea aitortu arren, hori ez dela betetzen kasu hauetan. Sebas Etxanizi dagokionez, salatu zuten zigorraren hiru-laurdenak beteta izan arren, "zigor osoa betetzera kondenatuta" dagoela eta horren arabera, 2024an, 81 urterekin geratuko litzatekeela aske. Gaur egun Villabonako (Asturias) kartzelan dago.



Gipuzkoako zahar etxeetako langileen martxa Elgoibarrera iritsi zen eguaztenean



Urriaren 7an abiatu zuten martxa Gipuzkoako zahar etxeetako langileek Donostian, eta hilaren 18an bukatuko dute, hasitako lekuan bertan. Tartean, herriz herri dabiltza, Gipuzkoako zahar-egoitzetako eta eguneko zentroetako 5.000 langileen lan baldintzak arautzeko hitzarmena eskatzen. Elgoibarrera, asteazkenean iritsi ziren, eta San Lazaro egoitzatik abiatuta, Kalegoen plazara arteko bidean egin zuten, han, udaletxean, dokumentu bat lagatzeko agintariei. Lan gatazka konponitzeko bitartekoak jartzeko eskatu zieten udal agintariei, dagoeneko 115 egun baino gehiago daramatzatelako greban, argirik ikusi gabe.

Auzitegi Gorenaren epaia salatu eta Kataluniako agintari independentistei babesa agertzeko bilkurak egin dira Elgoibarren eta Mendaron



Segizio delitua leporatuta, Espainiako Auzitegi Gorenak 9 eta 13 urte arteko kartzela zigorrak ezarri zizkien astelehenean 2017ko urriaren 1eko Kataluniako erreferendumagatik epaitu dituen bederatzizko independentistari: Oriol Junqueras Generalitateko presidenteorde izandakoa, Raul Romeva Atzerri kontseilaria, Joaquin Forn Barne kontseilaria, Jordi Turull Presidentetza kontseilaria, Jordi Rull Lurralde Antolaketako kontseilaria, Dolors Bassa Lan eta Gizarte Gaietarako kontseilaria, Carme Forcadell parlamentuko presidentea, Jordi Sanchez ANCKo presidentea eta Jordi Cruixat Omniumeko presidente ohia. Era berean, isunak eta inhabilitazioa ere ezarri zien Santi Vila Kultura Kontseilari ohia, Carles Mundo Justizia kontseilariari eta Meritxell Borrás Gobernazio, Administrazio Publiko eta Etxebizitza kontseilariari, desobedientzia egotzita. Eta epaia jakitzeaz bat, milaka herritar irten ziren kalera Katalunian, bai eta hemen ere, Euskal Herrian, tartean Elgoibarren eta Mendaron ere bai.

Tecmaneko lan gatazkan akordioa sinatu dute enpresak eta sindikatuak



Tecman SVA S.L. enpresako greba mugagabea amaitu da. Hala jakinarazi zuen LABek astelehenean. Tecman enpresako beharginek 105 egun egin dituzte greban, baina enpresak eta LAB sindikatuak akordioa sinatu dute, eta itzuli dira ohiko lan-jardunera. LABen esanetan, langileen eskaera nagusi guztiak onartu ditu enpresak. Honako hauek: KPltik gorako soldata igoerak, guardiak borondatezkoak izatea eta guardiak egiten dituzten langileek gehiago kobratzea, aldi baterako kontratua duten hiru langileren kontratuak mugagabe bihurtzea, aldi baterako ezintasun guztiak, izan arruntak zein lanaren ondoriozkoak, %100 ordaintzea, eta lan egiten duten zapatu bakoitza 1:20gatik konpentsatzea eta domekak, 1:40gatik.

LABetik grebak iraun duen denboran langileek erakutsitako konpromisoa eta elkartasuna txalotu dituzte. "Borroka eta mobilizazioen bidez lortu dugu lan-baldintzak duinduko dituen akordioa". Era berean, bai sindikatuak eta baita langileek eurek ere eskerrak eman dizkiete hilabete hauetan babesa erakutsi dieten guztiei, eta berreziki Mendaroko Ospitaleko langileei.

'Prezio Juxtua' lehiaketa antolatu du Txankakua Elgoibarko merkatarien elkarteak

San Frantzisko kaleko bigarren zenbakian, Rural Kutxaren hegaleko erakusleihoan, hainbat produktu batu ditu Txankakua, eta lehiaketa sortu du. Erakusleihoan dagoen produktu-sorta horren prezio zehatza



asmatzen duenak produktu guzti-guztiak eramango ditu saritzat. Prezio juxtua lehiaketan parte hartzeko, Txankakua saltokietan egin behar dira erosketak, gaur hasi eta urriaren 30a bitartean. Dendetan erosten dutenei boleto bana emango diete, bertan beren datuak eta prezio zehatz bat jartzeko.

Hauteskunde-mahaietarako zerrendak, publiko

Azaroaren 10ean egingo dira Espainiako Gorte Nagusietarako hauteskundeak, eta martitzenean egin zituzten Elgoibarren eta Mendaron hauteskunde-mahaiak osatzeko zozketak. Elgoibarren, udalbatzaren osoko bilkuran egin zuten zozketa, eta Mendaron, eguerdian. Programa informatiko baten bidez egin zuten zozketa bietan, eta dagoeneko jarri dituzte martxan jakinarazte-sistemak: telefono deiak eta gutunak. Elgoibarko kasuan, gainera, herritarrek aukera dute hauteskunde-mahaian egotea egokitu zaien ala ez on-line kontsultatzeko. Horretarako Elgoibarko Udalaren webgunean sartu behar da, eta NAN zenbakia sartu propio kontsultarako sortu duten moduloan (Hemen lotura zuzena: <http://elgoibartarrenesanetan.net/mahaiak/index.html>).

Gazta dastaketa egingo dute gaur Mendaron

Debabarreneko Gazta Astearen barruan, gazta dastaketa antolatu dute Mendaron gaurko. Elgoibarko Mautsixa gaztandegiko ardi-gazta eta Mallabiko Axelekuk eginiko behi-gazta dastatzeko aukera izango da, debalde. Mautsixa eta Axelekuko ardi eta behi gaztez gainera, Mutrikuko Sagarmiña baserriko txakolina ere dastatzeko aukera izango da. Goñati pilotalekuan izango da dastaketa, 19:00etan hasi eta 20:30ak bitartean. Debabarreneko III. Gazta Astearen laugarren ekitaldia izango da aurtengoa. Eskualdeko artzaintza ezagutzera emateko asmoz antolatzen dute Debemen Debabarreneko Landa Garapenerako elkarteak, Eibarko Udalak eta eskualdeko hainbat gaztandegik, tartean Elgoibarko Mautsixa.

▶ ANABEL ARRAIZA

BIZIPOZA ELKARTEKO KOORDINATZAILEA

Anabel Arraiza (Lakuntza, 1975) euskal aktorea, musikaria eta kazetaria da. Triki Ta Ke musika taldean abesten hasi zen, baina telebistak egin zuen ezagun. Zortzi urtez jardun zuen ETB1-eko 'Goenkale' telesailean lanean, eta hainbat film ere egin izan ditu. Gaur egun telebista aurkezle da Hamaika Telebista katean, eta horrez gain, Bizipoza proiektuaren sustatzaileetako bat da. Izaera bereziko gaiak lantzen dituzten elkarten aterpea da Bizipoza. Beraien lana gizarteratzeko eta ezagutzera emateko dokumentala eta dokuweb bat sortu dituzte, DanobatGroup taldeak diruz lagunduta. Euskal Herriko herri eta hiriburuetan aurkeztuko dute, baina estreinako aurkezpena Elgoibarren egin dute aste honetan bertan. Bizipoza taldeko hainbat kide eta boluntario batu ziren eguaztenean Herriko Antzokian, Bizipoza osatzen duten elkarteetako familiek, denak batuta, mundu justuago baten alde egiteko.

- AINHOA ANDONEGI -



◆ Zer da Bizipoza?

Izaera bereziko gaiak lantzen dituen 35 elkarte batzen dituen elkarte da Bizipoza. Elkarteek gain badaude bazkideak, babesleak eta boluntario sare bat ere, gure jardunean laguntzen dutenak.

◆ Noiz eta nola sortu zenuten Bizipoza elkarteak?

Hasiera batean Irrien Lagunak gizartegitza proiektutik sortu zen Bizipoza, eta 2016. urtean egin zen autonomia, eta Irrien Lagunak egitasmoaren parte izateari utzi zion. Hasiera batean elkarte gutxi batzuekin abiatu zen, eta poliki-poliki joan dira gainerakoak batzen.

◆ Nolakoak dira Bizipoza osatzen duten elkarteak?

Elkarte guztiak Euskal Herrian jarduten duten elkarteak dira, eta euskarak batzen gaitu. Elkarteek lan eremu desberdinak dituzte: batzuek gaixotasun bat dute ardatz, beste batzuek familia eredu desberdin batean bizi dira, edo nazioartean lan egiten dute... Baina guztiak amankomunean helburu bera dute: Haur eta nerabeekin egiten dute lan gehienek, familian, eta beraien egoeragatik, ez dituzte eskubide guztiak bermatuak. Dela aisian, ikasketxean, osasunean, familian edota gizartean bertan eskubide urraketak jasaten dituzte, eta Bizipozak elkarte guzti hauek batuz, beraien bozgorailua izan nahi du gizartean.

◆ Zein da Bizipoza elkartearen egitekoa?

Elkarteek dituzten balore guztiak gizarteratu eta gizarte hobeko bat eraikitzea da gure helburua; herri inklusiboa izanen dena, eta haur guztiak kontuan hartuko dituen. Azken batean, haur guztiak eskubide berberak izan ditzatela nahi dugu, eskubide guztiak bermatuta izatea.

◆ Bizipoza izena jarri zenioten. Zergatik? Zein esanahi dauka hitz horrek zuentzat?

“Guztiok kabida izango genukeen mundu bat nahi dugu”

Irria zabaldu nahi dugulako, eta Euskal Herri hau euskal irri bihurtu nahi dugulako jarri genion Bizipoza izena. Azken batean, bizipoza guztiaren gainetik egon dadin. Bizipozak adierazten du irria, elkartasuna, alaitasuna...

◆ Zein ekintza burutzen ditu Bizipoza elkarteak?

Gure helburua lortzeko bidean hainbat ekimen egiten ditugu urtean zehar. Bizipoza Jaia esaterako urtero egiten dugu, eta jardunaldiak ere antolatzen ditugu. Auzolanen lan egiten dugu eta bidelagunak bilatzen ditugu, ekimenak aurrera atera ahal izateko. Azken batean, egunerokoan bakoitza berera dabil, eta kanpotik eskainitako laguntzarik txikiena ere, laguntza handia da beraiantzat. Elkarte batzuk handiak dira, baina beste batzuk oso txikiak, eta denon artean, elkarlanean, beste modu bateko indarra egiten dugu. Helburu eta nahi berdinak ditugu denok, eta horregatik jarduten dugu batuta.

◆ **Irrien Lagunak taldean 'Ane pirata' zara zu, Elgoibarko Ane Perezen omenez sortutako pertsonaia. Zer eskaintzen dizu Ane piratak?**

Ane Pirata erreferente bat da Irrien Lagunen barruan, eta beti egonen da gurekin. Katxiporreta pailazo taldeak Donostiako ospitalean minbiziaz gaixo dauden umeei bisitak egiten dizkie Aspanogi elkartearen bitartez, eta baze goen neska bat pailazoan bisita eskatzen zuena; hori Ane zen. Eta Ane sekulako deskubrimendua izan zen guretzat. Anek energia itzela zeukan. Marrazo askoren kontra borrokatu zuen pirata izan zen. Pertsona berezia zen, eta pertsonaia bat sortu genuen Ane Piratarekin. Paper horretan sartzea egokitu zitzaidanean banekien zer transmititu behar nuen; bizipoza transmititu behar nuen. Anek esaten zuen inportantea ez zela urteak betetzea, baizik eta abenturak bizitzea. Bizitza honetan eduki beharreko jarrerari buruzko lezioa ematen digu esaldi horrek.

◆ **Bizipoza dokumentala eta dokuweb-a sortu dituzue. Zer lortu nahi duzue ekimen berri horrekin?**

Bizipozak egiten dituen ekimen horien artean hasi ginen dokumentala eta dokuweb-a sortzeko lanetan. Dokuweb-a da dokumentalez jositako webgunea, eta hor jaso ditugu Bizipoza osatzen duten elkarten dokumentalak. Elkarte bakoitzaren egitekoa hiru minutuko dokumentaletan jaso dugu, eta denak jarri ditugu ikusgai webgunean. 33 elkarteren dokumentalak daude, azken biak beranduago sartu direlako, baina aurrerago egongo da materiala gehitzen joateko aukera. Elkartearen helburuak, egitekoak, ozto-

“DanobatGroupen laguntzarik gabe proiektu hau ezinezkoa zatekeen”

poak eta bestelakoak jaso ditugu. Iruditu zitzaigun gure berri modu bisualean emanda errazago iritsiko ginela hartzaileengana. Urtebete pasa eman dugu grabazioak egiten eta gero hori guztia webgunean jartzen. Horrez gain, prestatu dugu 18 minutuko dokumental bat, bere osotasunean azalduko duena beste guztia.

◆ **DanobatGroupek diruz lagundu du egitasmo honetan, eta Elgoibarren egin duzue estreinaldia.**

Bai. Elgoibarren egin dugu aurkezpena primizian, proiektu handi hau DanobatGroup taldeari esker egin dugulako. Beraren laguntzarik gabe proiektu hau ezinezkoa zatekeen. Kontseiluan erabaki zuten proiektu hau bultzatzea, eta eskerrak ematea baino ez zaigu geratzen. Gure Olentzero izan da DanobatGroup, bestela ezin izango genukeen aurrera egin. Gero Euskal Herriko hiriburuetan eta beste herri batzuetan ere aurkeztuko dugu, gure nahia delako proiektu honi ahalik eta zabalkunde handiena ematea, jendeak ezagutu dezan gure errealitatea.

◆ **Zeintzuk dira aurrera begira dituzuen asmoak?**

Proiektu hau zabaldu eta gure elkarteek egiten duten guztia zabaltzen eta gizarteratzen jarraituko dugu. Gizarte hobeto baten alde lanean jarraituko dugu, guztiontzako beharko lukeen mundua eraiki nahi dugulako. Guztiok kabida izango genukeen mundua nahi dugu, eta hori lortzeko tresnak sortzen joango gara. Ipuinak egin izan ditugu, orain dokumentala, eta aurrera begira gauza berriak egingo ditugu.



Herriko Antzokian aurkeztu zuten Bizipoza Elkartearen azken egitasmoa eguaztenean.

Larrean eta libre



Euskal pottokak hazten dituzte Mendaroko Berasaluze baserrian. Etxe bueltako sailak garbitu eta bide batez galtzeko arriskuan zegoen hemen bertako arrazari bultzada emateko ekarri zituzten. Gaur egun, hamalau buru dituzte, zaldi-heziera naturalaren bidez hezita.

- AINARA ARGOTIA -

Zaldi, behor eta moxalak parasito gabetzeko eguna dute Berasaluze baserrian. Hamalau buru dituzte, euskal pottoka arrazakoak denak, eta itzalera eginda daude gaur, bat ez beste guztiak. Bakar hori, moxal beltza, ondorik duela dator Antonio Gonzalez atarira. "Hauxe da gure maskota. Biberioia ematen hasi gintzaizkion jai eta laugarren egunera, amak ez zuelako onartzen. Amaren oritza hartu zuen, baina ez behar beste, eta horregatik, ez da besteak beste haziko [Arnoate baserrira eramana zuten lerro hauek idazterako, Berasaluzeko proiektuan lekurik ez zuela ikusita]". Eskeperaino jarraitu dio moxalak atzetik. Lucy Rees zaldizale, biologo eta etologo galestarrari buruzko hainbat artikulu daude eskegita han hormetako batean. "Zaldizaleontzat erreferente bat da Rees; zaldi-heziera naturalean, maistra", azaldu du Gonzalezek. Piornalen (Caceres, Espainia), Extremadurako herririk garaienean, Gredos mendilerroaren bihotzean, 1.200 hektareako lursaila dauka errentan hartuta Reesek, zaldien

jokabideak aztertzeko, eta zaldi-heziera naturalean trebatu nahi dutenetako askok jotzen dute berarengana ikastera. "Ez dago Reesena baino eskola hoberik. Neu ere gustura juango nintzateke hara hiru bat hilabeterako, semea hazi eta hipoteka ordaindu beharrik ez banu. Izugarria izan behar da Rees lanean ikustea". Ikastaro bat egina dauka Gonzalezek berak ere, eta etxeko zaldi eta behor guztiak haren metodoarekin hezi ditu. Berasaluzeko filosofiaren parte da. Ez zigorrik, ez estresik, eta ez kortan lotzerik. "Ahalegintzen gara animalia gure eskura ekartzen. Horretarako, aulki bat hartu eta zelai erdi-erdian jartzen naiz, liburuia irakurtzen edo besterik gabe, ingurura begira. Zaldia oso animalia kuriosoa da, eta ezer egingo ez diogula ikusten duenean, bera gerturatzen da, usaintzera. Hori da lehenengo pausoa. Zaldiak berak hartu behar du konfiantza gurekin, baina berak eman, ez". Behin hori lortuta, ahora ogia ematen hasten zaie zaldiei. Denbora behar da izatez salbajea den animalia modu horretara otzantzeko edo

etxekotzeko. "Pazientzia handia behar da hemen, baina aukeran nahiago dut nik hori animalia estresatzea baino". Doma bakeroari egin dio erreferentzia: "Han sokekin harrapatu, buruko estuak jarri eta zaldia intzirika eta arnasestuka erabiltzen dute, harik eta mendean hartzen duten arte. Guk ez dugu halakorik nahi. Burukoak eta badauzkat neuk ere, baina estutzeko bridarik gabeak". Berasaluzeko pottokak larrean bizi dira, gau eta egun. Aterpe bat badute, baina jabeek lagatako ogi pusketak edo belar-sikua jatera ez bada, apenas arrimatzen diren hara. "Zauriren bat egiten badira ere, bakarrik osatzen dira. Eta parasito gabetzeko sistema naturala ere badute. Arbola-enborrak marraskatzen dituzte horretarako". Beste bat da hipikarako erabiltzen dituzten zaldien kasua: "Hipikako zaldi batek txarrantzarekin ebagi txiki bat egiten badu, bizkor eta argi ibili beharra dago tetanoarekin, zaldia hilko ez bada. Hain dago arraza adulteratuta, zaldi horiek galdu dutela beren burua osatzeko ahalmena".

Zaindu, betiko galdu ez dadin

Duela hamar bat urte hasi ziren Berasaluze baserrian euskal pottokak hazten. Etxe bueltako sailak garbitzeko ekarri zituzten. Ahuntzak ere inguratu zituzten, baina haiek kendu zituzten, ekarri eta gutxira. Zerbait "ezberdina" egin nahi zuten, "probetxuzkoa", eta pentsatu zuten euren alea jartzea galtzeko arriskuan zegoen arrazari laguntzeko. Animalia bat galtzeko arriskuan egoteko, ugaltzeko moduan dauden 1.000 abere baino gutxiago egon behar dutela dio Nazio Batuen Erakundeko Elikadura eta Neka-

zaritza Erakundeak, eta Berasaluzen proiektu honetan sartu aurretik, 1996. urte aldera, izan zuen arrisku hori euskal pottokak. Halaxe, Narciso Arrillaga lagunarekin jarri zen harremanetan Gonzalez. Arrillaga, Gipuzkoako Pottokazaleen elkarteko presidenteordea, laguna zuen eta harengana jo zuen laguntza eske. Hiru behor erosi zizkion, umedun hirurak. Mendiko lasterketetan lehiatzeko zaldiak nahi zituen Arrillagak eta zaldi arabiar bat ekarria zuen "dirutza ordainduta" behor haiek estaltzeko. "Zaldi arabiarrek oso azkarrak dira, baina hemengo lurretarako baldar xamarak. Aldiz, euskal pottoka oso ondo moldatzen da gure paraje aldapatsu hauetan; eta ez alferrik. Bera da hemen bertako arraza, gure lurretara ondoen egokitu zena". Bi arraza horien arteko gurutzaketatik jaiotako bi pottokak Berasaluzen hazi zituzten sei hilabetez, jaiotako bertan egin zirelako, eta tratuan zehaztutako moduan, eskura jarrita zeudela eraman zituen Arrillagak Mendarotik. "Zaldiak 6 urte bete arte ezin da gainean ibili, baina egun hori iritsitakoan, lasterketetan ibiltzeko asmoarekin prestatu zituen".

Beste bat da Berasaluzeko proiektuaren atzean dauden Anton Piñel eta Antonio Gonzalezen asmoa: "Gure mendietako zaldi arraza da euskal pottoka, Europako arraza zaharrena. Gure arbasoak hari esker irten dira hemen aurrera, baina galtzeko arriskuan ere egon dira euskal pottokak, eta balioa eman nahiko genioke gurea den horri". Horretarako ari dira Gipuzkoako Pottokazaleen Elkartearekin hartueman estuan, euskal pottoka arrazak badituelako berezko dituen ezaugarri batzuk zaindu beharrekoak. "Batetik, pottoken identifikazio erregistroa zaindu behar da, erre-





gistro genealogikoa alegia, eta bestetik, animaliak ezaugarri jakin batzuk bete behar ditu. Denekin ez nago konforme, jakina, baina ulertzen dut arraza zaintzeko parametro batzuen barruan mugitu beharra dagoela”, zehaztu du. Behor bat seinalatu du atzaparrarekin. “Ekaineko kobazuloan marraztu zutena bera dela ematen du. Ikusgarria da. Aho zabalik egoten naiz hari begira. Ikusten dudanean korrika, bere krin edo kalpar luze horri tente duela oilo narrua jartzen zait. Ikaragarri ederra da, baina puntuazio baxua ematen du”. EPOFE euskal pottoka arrazako zaldi-hazleen Euskal Herriko elkarteak markatutako irizpideen arabera, gizona dago, eta okelarako balio du, baina ez erreproduktorako. Hala ere, zaldi on batek estaliko balu, haren kumeek lortu ahalko lukete amak lortu ezin duen puntuazio hori. “Ez nator bat horrekin, lodiak, argalak, iledunak eta burusoilak, denetik egon delako hemen beti, eta zaldietan berdin, baina joku-arauak hauek dira eta errespetatzeko daude”, gehitu du horren harira.

Eta bistan da zaintzeko ahalegina egiten dutela Berasaluzen. lazko irailan, estrainekoz, Pottoka arrazako zaldien topaketa antolatu zuen Gipuzkoako Pottokazaleen Elkarteak, Euskal Herriko zaldi arraza zaharrenaren ezaugarriak eta pottoken jabeek egiten duten lana ezagutzera emateko, eta bide batez, katalogo bat osatzeko. Zaldien itxura orokorra, mugimenduak eta erabilerarako gaitasuna aintzat hartuta, hiru zaldi onenak aukeratu zituzten bi teknikaririk, eta bigarren puntuaziorik altuena jaso zuen Berasaluzeko *Kalamaro* izeneko zaldiak, Debako *Bizkor* zaldienaren atzetik. Eta orain, Debako zaldi haren kume bat dakarte Mendarora, eta Mendaroko zaldi bat Debara, “genetika kontuak zaintzeko”.

Zaindu. Behin eta berriz darabil ahotan berba hori Gonzalezek. Garrantzitsua irizten dio hemen bertako arraza zaintzeari, baina eginahal horretan, baliabideak edo bitartekoak falta direla uste du. Kontzientziak esnatu behar direla dio. Betizua, ahunz azpigorria, ardi muturgorria, euskal txerria, euskal pottoka... galtzeko arriskuan daude edo egon dira. Ez dago kontzientziaririk. Herritarrek ez dute zertan interesa izan gai hauetan, baina esan beharko dugu ba gure identitatearen parte direla hauek, ezta? Gure aurrekoek animalia hauei esker egin dute aurrera”. Horregatik iruditzen zaizu eskoletan-eta garrantzi handiagoa eman beharko

lieketela gai hauei, eta transmisio hori bereziki landu beharko litzatekeela. “Umeek teknologia ikasi behar dute atzera geldituko ez badira, baina gure ingurua zer izan den eta zer den ere jakin beharko dute ba, ala? Esan beharko diegu ba Euskal Herriko baleazaleek, Kanadako Ternua eta Labradorreko kostaldean balea-arrantzan jardun zuten Euskal Herriko arrantzaleek ere, erabili zituztela euskal pottokak materiala garraiatzeko, ala?”. Kontzientzia hartzeko, informazioa izatea ezinbestekoa dela uste du Gonzalezek, eta hor ikusten du hutsunea, administrazio publikoetatik zuzendu beharrekoa hein handi batean. “Ez dakit dirua jarri behar duten edo beste zerbait den, baina interes handiagoa jarri beharko lukete behintzat, hau dena gure identitatearen parte delako. “Ez dut euskal pottoka bat imaginatzen Sevillako Maestranzan zezena toreatzen. Han zaldi espainiarra edo asko jota zaldi lusitano portugesa ikusten ditut nik. Bada, berdin hemen. Ez dut euskal pottokarik gabeko Euskal Herriko irudikatzen, edo ez nuke nahi behintzat”.

Euskal pottoka

Asiatik Europa aldera etorri ziren zaldiak. Ugaltzen joan ziren heinean, lur eremuak hartzen joan ziren, eta Europara iritsi ziren. Pirinioetan eta Kantauriko mendietan geratu ziren zaldi horiek, eta ordutik iraun dute. Euskal Herriko mendietara egokitu eta iraun duten zaldiei deitzen zaie pottoka. Asturiasen garai bereko arraza bat dago; han, Asturkoiak deitzen diete. Galizian ere badute zaldi bat oso antzekoa. Pottokak 1,15 eta 1,32 metro luze inguru dira. Mendietako zaldia da, eta oso ohituta dago gure mendietan bizitzen, bai neguan bai udan. Pottokak apenas behar duten zaintzarik: ez sendagairik, ezta ferrak jartzerik ere. Azken finean, pottoka mamuten garaiko animalia da, glaziazioa iraun duena. Hortaz, ohituta dago negu gogorrek pasatzen eta jan gutxirekin bizitzen. Gure mendietan irauteko guztiz prestatuta dago, eta horregatik, kontrabandistek-eta asko erabiltzen zituzten, zama mugaz alde batetik bestera garraiatzeko.

▶ ANA MOSACULA

ARTISAUA

Elgoibarko Artisauen Azoka egingo dute bihar Maalako parkean ArTaldeak antolatuta. Bitxiak, oihalak eta bestelako eskulanak ikusi eta erosteko aukera egongo da, eta baita Ana Mosacularen (Ses-
tao, 1955) krema eta xaboi naturalak erosteko ere. Orain dela hamabost bat urte hasi zen Mosacula xaboi gintzan, eta zortzi bat urte daramatza azoketan saltzen.

- AINHOA ANDONEGI -



“Artisau azoketan sortzen den giroa oso polita da”

◆ Nola hasi zinen xaboi gintzan?

Landare sendagarriekin hasi nintzen lehenengo. Betidanik interesatu izan zaizkit, eta ikastaro bat egin nuen landareen propietateak ezagutzeko eta nola prestatzen diren ikasteko. Hortik abiatuta, kremak egiten hasi nintzen, bai aurpegirako eta baita gorputzerako ere. Nik neuk ekoiztu eta jasotzen ditudan landareekin prestatzen ditut kremak ere, produktu naturalekin eginda. Eta gero xaboiekin hasi nintzen. Orain dela sei bat urte ikastaro pare bat egin nituen, eta xaboiak egiten hasi nintzen.

◆ Zein berezitasun dute zure xaboiak?

Produktu natural eta ekologikoekin eginiko xaboiak dira. Alkohola eta olioak erabiltzen ditut batez ere, eta gehien erabiltzen ditudan landareak aloe vera, kalendula, lavanda eta horrelakoak izaten dira. Nik neuk landatzen ditut gehienak, eta beste batzuk naturak berak ematen ditu. Intxusaren azala, esaterako, asko erabiltzen dut, eta erredurentzako oso ona da. Erropak garbitzeko xaboiak ere baditut, mariarekin eginiko krema bat giharretako minaren kontrakoa, azalerako kremak... Produktu onak dira, baina ez miragarriak.

◆ Jendeak preziazten al du ekologikoa eta naturala izatea?

Denetik dago. Produktuak merke saltzen ditut, denentzako eskuragarri izan daitezkeen. Nire kremarik garestienak 15 euro balio ditu, eta badago jendea uste duena merkea delako ez dela ona. Jende askok kalitatea prezioarekin lotzen du oraindik. Beste batzuk, ordea, preziazten dute. Nik erabiltzen ditudan osagai guztiak natura errespetatzen dute, eta ez dira kutsakorrak. Saiatu izan naiz baita ere berrerabilitako ontzietan saltzen kremak, baina ez du funtzionatzen. Merkeagoa eta ekologikoagoa izango litzateke produktua, baina jendeak ontzi politak nahiago ditu. Badaukat xanpu berezi bat, xaboi

bloke bat dena, zatarrak, txakur kaka itxura duena eta plastikorik gabe saltzen dudana. Batzuek horregatik bakarrik nahi dute produktu hori.

◆ Zer eskaintzen dute artisau azokek?

Gure produktuak saltzeko plaza da. Niretzako ekoizten hasi nintzen, eta gero gertukoei saltzen nizkien produktuak. Lagunek animatu ninduten azoketan parte hartzera. Trinitate jaietan irten nintzen estreinakoz kalera nire produktuekin, eta egia esan, izugarri gustatu zitzaidan. Azoketan sortzen den giroa oso polita da. Gaur egun Gipuzkoako herri txikiak azoketan hartzen dut parte, bereziki.

◆ Artisau izatek bizi daiteke gaur egun?

Badaude batzuk autonomoak direnak eta artisautzatik bizi direnak, baina oso zaila da. Niretzako hau zaletasuna da. Jubilatuta nago, eta afizioagatik egiten dut. Jubilatuta aurretik hasi nintzen honekin, 50 bat urte nituela, eta gustuko dudalako jarraitzen dut.

ARTISAUA AZOKAKO PARTAIDEAK

- ◆ Irati Agirreazaldegia (Bizi Bitxi Bizi)
- ◆ Nekane Altube eta Bidatz Azpiazu (Zu+Ni)
- ◆ Edurne Askasibar (BitxiBitxi)
- ◆ Maialen Astigarraga eta Larratiz Lopez (Xarlem Creations)
- ◆ Nagore Cid (Moninbo)
- ◆ Nieves Maidagan
- ◆ Ana Mosacula
- ◆ Emilia Nogales
- ◆ Amalur Urresti (Darama)
- ◆ Iris Cei
- ◆ Idoia Azpilikueta (Azpi's Bags)
- ◆ Bihotza Lopez (Etxean Goxo)

Botibol taldearen kontzertua antolatu du Sinuösek urriaren 25erako

Botibol ezizenarekin ezagutzen den Vincent Bestaven artistaren hirugarren lan luzea da *La Fièvre Golby*, eta Johannes Buff soinu egileak Euskal Herrian duen grabatze estudioan ekoiztu du lana, lagunez inguratutik. Gai asko sartu ditu lan honetan, besteak beste, amodio eta antizipaziozko istorioak. Folk doinuei poparen antzizkia eta instrumentazio ugaria bezain zehatza gehitu dizkio. Hamar urtez frantses indie panoraman bere izena



ezagutzera eman du, eta azken hiru urteetan, Pierre Loustaunauren *Petit Fantôme* proiektuaren partaide aktiboa izan da. Joan zen astean kaleratu zuen lan berria, eta datozen egunotan hainbat kontzertu emango ditu, bai Euskal Herrian eta baita Espainian ere. Elgoibarrera gaur zortzi iritsiko da, Sinuöseren eskutik. 23:00etan izango da kontzertua, Kultur Etxeko sotoan.

Abarketak egiteko tailerra, Mendaron

Emakumeak ahalduzko tailerra prestatu du Mendaroko Udalak. Bost egunetan emango dute abarketak egiteko tailerra: Urriaren 28an, eta azaroaren 4an, 11n, 18an eta 28an izango dira saioak, 9:30etik 12:30era, Jubilatuen lokal txurian. Izena emateko azken eguna urriaren 21a izango da. Bost euro ordaindu beharko dira izena emateko, baina hamar laguntzako lekua bakarrik dagoela ohartarazi du Mendaroko Udalak. Izena emateko edo informazio gehiagorako honako telefonora deitu behar da: 943 033 282 edo helbide honetara idatzi: kultura@mendaro.eus

Debabarreneko orfeoien kontzertua, domekan

Debabarreneko orfeoien kontzertua emango du datorren domekan, urriaren 20an. San Bartolome parrokian izango da, 12:30ean.

Giro onean ospatu zuten Mendaroko bigarren Gazte Eguna

Mendaroko Gazte Asanbladak bigarren urtez antolatu du aurten Mendaroko Gazte Eguna, eta pozik daude izan duen harrerarekin eta sortu zen giroarekin. Poteoa egin ostean, pasta lehiaketa egin zuten goizean, eta 60 bat lagun elkartu ziren bazkarian. Eguraldi ona aprobetxatuz, Gaztetxe kanpoko plazan bazkaldu zuten aurrez prestatutakoa. Gernikako Belatz musika taldeko kideek ere hartu zuten parte bazkarian, eta beraiek izan ziren gainera, pasta lehiaketako epaileak. Bost kuadrillek hartu zuten parte lehiaketan. Bazkaritan giro oso polita sortu zela esan dute antolatzaileek. Bazkalostean bingo musikatuarekin eta gazte jokoekin jarraitu zuten festak, eta iluntzean eta gauean musika girotu zituen herriko kaleak eta Gaztetxea. Debrass



Band Debako taldeak girotu eta gidatu zuten arratsaldeko poteoa. Mendarozabalen eta Herriko Enparantzan ibili ziren. Gauean, berriz, Guri 5! Gabiriako erromeria taldeak eta Belatz rock taldeak kontzertua eman zuten Gaztetxean.

Haurren autonomiari buruzko hitzaldia antolatu dute hilaren 31rako

Haurren autonomia: erakutsi ala ikasi? izenburuko hitzaldia antolatu dute Elgoibarko Udalak eta herriko ikastetxeetako guraso taldeek elkarlanean. Nerea Mendizabalek emango du hitzaldia, urriaren 31n, 17:30ean, Kultur Etxeko hitzaldi gelan. Hitzaldirako izena eman behar da. Ikastetxeek zabalduzako informazio-orria bete edo whatsapp bidez zabaldu duten loturan sartuta eman behar da izena. Oraingoan, gainera, zaintza zerbitzua ere eskainiko dute antolatzaileek, doan, saioan parte hartu nahi duten gurasoei bidea errazteko. Udaletik jakinarazi dute Guraso Formakuntza ekimenaren barruan aurrerantzean egingo dituzten saio guztietan izango dela zaintza-zerbitzua. Umeak zaintzan lagatzeko asmoa duenak, baina, aurrez jakinarazi beharko du

'Go!azen' telesaileko istorioak liburu batean jaso ditu Jasone Osorok

Go!azen telesaileko pertsonaien istorioak jaso ditu Jasone Osoro idazle elgoibartarrak *Iritsi gara!* liburuan, eta dagoeneko salgai dago. Hauxe da argumentua: Batbatean, kamioi bat gurutzatu da errepidean eta auto-ilarak sortu ditu. Uste baino gehiago luzatuko da itxaronaldia, eta dozenaka autobusek eta kotxek geldirik eta zain egon beharko dute. Autoetako batean daude Zuri, Eli, Gari eta Julen; autobusetako batean, berri, Danel, Eider, Eneko, Maddi, June eta Igor. Aimar amarekin doa autoz. Gabo desesperatzen hasi da gasolindegian atzeratzen ari direlako. Era batera edo bestera, guztien bizitzak gurutzatuko dira errepidean. Familia hippy bat edota auto-stop egiten duen jendea ezagutuko dute, ezkatuta dagoen leku baten berri izango dute... Hainbat abentura igaro ondoren, azkenean, bai, iritsiko dira Basakabira.



Elgoibarko Herri Eskola ezagutzeko jaia egingo dute bihar

Herri Eskolaz gozatu edo ikastetxea bera ezagutu nahi dutenezako jaia antolatu dute biharko. 11:00etan zabalduko dituzte eskolako ateak, eta ordu horretan bertan hasiko dira ekitaldiak. Jaiari hasiera emateko tailer ezberdinak egingo dituzte geletan, eta ondoren, Kalamua Guraso Elkarteak antolatuta, Herri Kirolak praktikatu ahal dituzte familian. Eguerdian han bertan eginiko paella edo bakoitzak eramandako arekin bazkaltzeko aukera egongo da. Arratsaldean, Niala magoaren ikuskizuna, dantza eta hainbat sorpresa izango dira. Kalamua Elkarteak Txosna jarriko du, pintxoak eta alkoholik gabeko edariek.



'Erbia eta dortoka' antzerkia, domekan

Umeentzako antzerkia antolatu dute domekarako: Glu-Glu produkzioak taldeak, *Erbia eta dortoka* antzezlanaren taularatuko du Herriko Antzokian, 16:30etik aurrera. Erbiak dortokari beti barre egiten dio, poliki ibili ohi delako eta gauzak astiro egiteko ohitura duelako. Halako batean, dortokak lasterketa egitea proposatuko dio erbiari: ea zeinek mendia azkarren gurutzatu. Erbiak pozarren onartuko du erronka.

Jubilatuen Asteko bazkarirako izena emateko epea, zabalik

Jubilatuen Astearen barruan 80 urteko gorakoen eta aurten urrezko ezteiak betetzen dituzten bikoteen bazkaria egingo dute azaroaren 27an, Jubilatuen Biltokian. Antolatzaileek jakinarazi dute dagoeneko zabalik dagoela izena emateko epea. Bazkarian parte hartu nahi dutenek Jubilatuen Biltokian bertan eman behar dute izena, astelehenetan edo barikuetan, 11:00etatik 12:00etara. Izena emateko beharrezkoa da Jubilatuen Biltokiko bazkide txartela erakustea, eta urrezko ezteiak betetzen dituztenen kasuan, hori egiaztatzen duen familia-liburua aurkeztea. Izena emateko azken eguna azaroaren 18a izango da.

'Ez dago guraso perfekturik' hitzaldia, urriaren 23an

Elgoibarko Udalaren Ongizate Sailaren laguntzarekin, Gurasoentzako Eskola abiaraziko du urriaren 23an Nuala elkarteak, aniztasun funtzionala edo adimen urritasuna duten pertsonen guraso eta lagun taldeak. Amaia Saenzek, Bideaneko terapeutak, emango du lehenengo hitzaldia. Laz, sentimenduen gainean jardun zen Saenz Elgoibarren, Nualak antolatutako beste formazio saio batean, eta oraingoan, gurasoek euren buruari jarritako exigentziak, errudun sentimenduak eta haien beste kezka ohikoenez jardungo da. *Ez dago guraso perfekturik* izenburua jarri diote hitzaldiari, eta nahi duen orok joan ahal izango du entzutera. Kultur Etxeko hitzaldi gelan izango da, 19:00etan hasita, eta egun horretan lotuko dituzte hurrengo hitzaldietarako gaiak, saiora gerturatzen diren guztien artean adostuta.



Arg.: RFEM/ Maria Ruiz




Arg.: RFEM/ Maria Ruiz

Mario Roman izan zen moto gidari azkarrena eta trebeena Idorben jokatuako bi Enduro txapelketetan

Moto hotsek hartu zuten Idorbe aurreko zapatuan, Urnabitza Kirol Klubak antolatuta bi Enduro txapelketa jokatu zituztelako: Euskadiko Enduro Txapelketa goizean, eta, Espainiako Hard Enduro txapelketa, arratsaldean. Iraupen Enduroko Euskadiko Txapelketako azken proba puntuagarria, zazpigarrena, izan zen goizean jokatu zutena. Parte hartu zuten 120 moto gidariek bi itzuli eman zizkieten 30 kilometro inguruko ibilbideari Idorbeko eta Aiasiako mendietan, eta itzuli bakoitzean erlojuaren aurkako bost minutuko bi proba osatu zituzten zirkuitu batean. Mario Roman (Madril, 1990) gailendu zen. Markos Beraza pilotu nafarra sailkatu zen bigarren postuan eta Josu Artola moto gidari amezketarra sailkatu zen hirugarren lekuan. Arratsaldean jokatu zuten Espainiako Hard Enduro Kopako azken proba puntuagarria, hirugarrena. 66 moto gidarik hartu zuten parte eta goizean lortu zituzten postuen arabera erabaki zen irteerako ordena. Muturreko enduroan ohikoa den moduan, gutxi lortu zuten proba bukatzea, 24 gidarik, hain justu ere. Bi ordu eta erdian lehiatu ziren Urnabitzaokoek prestatutako zazpi kilometroko zirkuitu gogor eta teknikoan. Lau pilotuk bakarrik lortu zuten zirkuitoari bost itzuli ematea, eta horien artean Mario Roman izan zen azkarrena. Bi ordu, hamar minutu eta segundo bat behar izan zituen Muturreko Enduroan munduko txapelduna den madrildarrak. Romanek 24 minutu eta 37 segundoan osatu zuen bere itzulietan azkarrena. Sherco Racing taldeko moto gidaria 125 zentimetro kubikodun motoarekin lehiatu zen gainera, zilindrada txikiko motoak muturreko endurorako eraginkorrak eta fidagarriak direla erakutsi nahi baitzuen, eta halaxe egin zuen. 19 minutuko alde atera zion bigarren postuan sailkatu zen Josu Artola amezketarrari, eta 35 minutukoa hirugarren egin zuen Alberto Aramburu tolosarrari.

Hawaiiko ironmana bukatzea lortu du Ibon Gabilondo triatleta elgoibartarrak



Munduko Triatloi Txapelketa jokatu zuten urriaren 13an ironman distantziako proben sorlekuan, Hawaii (AEB). Nizako ironmanean sailkapena lortu eta gero, Ibon Gabilondok (Elgoibar, 1977) estreinakoz hartu zuen parte proba ospetsuan, eta 11 ordu, 32 minutu eta 25 segundu behar izan zituen proba bukatzeko (3,8 kilometro igerian, 180 kilometro bizikletaz eta 42 kilometro korrika). 219. postuan sailkatu zen bere adin tartean (40-44 urte). Gabilondoren helburu nagusia proba bukatzea zen, eta, zailtasunak eta krisialdiren bat pasatu arren, lortu zuen helmugaraino ailegatzea. Triatleta elgoibartarrak esan du Hawaii egiten duen beroak eta hezetasun handiak asko gogortu zutela proba. Igerian ondo moldatu zen, ordubetan osatu zuen ibilbidea. Bizikleta gainean egin beharreko 180 kilometroetarako "estrategia oso kontserbadorea" erabili zuela azaldu du, eta postu asko galdu zituela. "Jende askok pasatu ninduen eta edan eta edan aritu nintzen proba osoan egiten zuen beroagatik". Bizikletako ibilbidea bost ordu eta 38 minutuan osatu zuen. Proba bukatzeko, maratoni bat korrika egitea falta zitzaion. Ondo hasi zen arren, berehala nabaritu zituen beroaren eraginak. "Hamaseigarren kilometro inguruan krisialdi nahiko gogorra pasatu nuen, deshidratatuta nabari nuen gorputza, gatz mineralak falta zitzaizkidan. Oinez hasi nintzen. Gatza hartu eta berriro korrika hasi nintzen. Asko sufritu nuen korrika, espero nuena baino askoz gehiago, baina bukatzea lortu nuen". Lau ordu eta 42 minutuan egin zuen maratonia. Triatloia munduan mitikoa den proban parte hartzea, eta Munduko Txapelketa izanik gainera, esperientzia guztiz postiboa izan da Gabilondorentzat.

Egañatarrak nagusi Euskadiko Ehiza Xeha Txapelketan


Pozak txorutzen daude egañatarrak. "Domekako egun ahazte-zina izan zen benetan, Euskadiko hiru txapelak etxera ekartzea izugarria izan da. Ametsa egia bihurtu da", dio Leire Egaña Euskadiko Ehiza Xeha Txapelketan irabazi zituzten hiru txapelez. Izan ere, lehiatu ziren kategoriaz guztietako txapelak ekarri zituzten etxera Zanbrana herriko El Castillo ehiza barrutian jokatuak txapelketatik.



Gizonezkoen maila nagusian Arkaitz Egaña Bastida gailendu zen, erakustaldia emanaz. Bederatzi eper eta faisai bat ehizatuta 5.000 puntutik gora batu zituen. Mikel Iturralde ehizari bizkaitarra sailkatu zen bigarren postuan, sei eper eta galeper bat ehizatuta, 3.106 punturekin. Emakumezkoetan Leire Egaña izan zen partaide bakarra eta berak eskuratu zuen titulua, bost eper ehizatuta (2.505 puntu). Beteranoen mailan Jose Mari Egaña izan zen onena, bost eper eta galeper bat ehizatuta (2.605 puntu). Jose Luis Gisasola eibartarra sailkatu zen bigarren postuan, lau eper eta faisai batekin. Euskadiko txapelketa irabazita, Espainiako Ehiza Xeha Txapelketaren finalerdietarako sailkatzea lortu du Arkaitz Egaña. Oraindik ez dakite non eta noiz jokatu den. Leire Egaña, berriz, finalerako sailkatuta dago, iaz Albaceten lortu zuen bigarren postuari esker.

Iker Izagirre federazioaren teknifikazio entrenamenduetan parte hartzeko aukeratuen artean

Gipuzkoako Euskal Pilota Federazioak (GEFF) teknifikazio entrenamenduak antolatzen ditu, probintzian nabarmentzen diren pilotari gazteei entrenamendu tekniko pertsonalizatua emateko. Hautaketa entrenamenduak egiten dituzte egitasmoan parte hartuko duten pilotariak aukeratzeko, eta infantil kategorian hautatu dituzten 35 pilotarien artean dago Iker Izagirre elgoibartarra, Lagunak Pilota Eskolako kidea. Deba eta Urola bailaretako pilotariak Urrestillan (Azpeitia) egingo dituzte entrenamendu saioak, Beñat Rezusta pilotari profesionalaren aginduetara.



Perretxikoak ezagutzeko mendi irteera antolatu du Morkaikok domekarako

Karakate elkarteak antolatutako 44. Jardunaldi Mikologikoen barruan, perretxikoak eta horiek hazten diren ingurunea ezagutzeko mendi irteera antolatu dute elkarlanean Morkaikok eta herriko ikastetxeek. Domekan, urriaren 20an, izango da irteera. Mintxetako aparkalekuan elkartuko dira 9:30ean, eta autoz joango dira Aittola aldera. Antolatzaileek argitu dute irteera honen helburua ez dela ahalik eta perretxiko gehien batzea, perretxiko mota desberdinen aleak batu eta horiek aztertu eta ezagutzeko baizik. Era berean, argazki lehiaketa bat ere antolatu dute jardunaldien barruan. Perretxikoen inguruan ateratako argazkiak aurkeztu daitezke lehiaketara, eta urriaren 21a izango da argazkiak aurkezteko azken eguna. Honako helbidera bidali behar dira: argazki-mikologikoa@gmail.com.

Euskal Herriko Hiru Txirlo txapelketa asteburuan hasiko da

Euskal Herriko 30. Hiru Txirlo bola-joko txapelketa lasturko bolatokian hasiko da zapatuan, urriaren 19an. Lau jardunaldi izango ditu txapelketak, eta hirugarrena Idortorbeko bolatokian jokatu dute, azaroaren 9an. Bigarren jardunaldia Iruzubietan jokatu dute urriaren 26an eta Markina Xemeinen azkenengoa, azaroaren 16an. Tiraldi guztiak 17:00etan hasiko dira.



LANA.....

Eskaerak

Adinekoak edo umeak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest nago. Esperientzia daukat. ☎ 631 103 865-

Adinekoak zainduko nituzke, etxeko langile moduan.

☎ 631 975 260

Adinekoak edo umeak zaintzeko prest nago. Etxeko lanak ere egingo nituzke.

☎ 631 923 059

Adinekoak zainduko nituzke. Gauak ospitalean pasatzeko prest. Titulu daukat. ☎ 671 989 434

Ile-apaintzaile lanak egiteko prest nago. Eteze etxe ere bai. Mota guztietako ile mozketak egiten ditut.

☎ 631 837 026

Adinekoak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest nago. Asteaz zehar orduka, eta bestela, asteburuetan.

☎ 681 013 032

Adinekoak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko prest nago. Berehala hasteko prest. ☎ 602 850 826

Adinekoak edo umeak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest nago. Esperientzia daukat.

☎ 633 150 376

Adinekoak edo umeak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest nago. Esperientzia daukat.

☎ 632 228 545

Adinekoak zaintzen edo sukaldari laguntzaile lanetan aritzeko prest nago. Bi lanetan esperientzia handia. Gauze eta asteburuetan lan egiteko prest.

☎ 603 346 659

ETXEBIZITZAK.....

Deban, 2 logetetako pisua alokatzen da. Azaroaren 1tik aurrera, ekaineararte. Egokia irakasle eta ikasleentzako.

☎ 669 339 529

BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK:

Merkatu txikiko iragarkiak hiru astez argitaratzen ditugu. Salmenta eta alokairu iragarkiak ordaindu egin behar dira. Etxebizitzak, garajeak eta lokalak: 18€ (alokairua) - 22€ (salmenta). Autoak saltzea: 18€. Bestelakoak: 10€. Iragarkiarri erretratua jarritz gero, 6€ gehiago ordaindu behar dira.

Etxebizitzak, garajeak eta lokalak: 15€ (alokairua) - 20€ (salmenta). Autoak saltzea: 15€. Bestelakoak: 8€. Iragarkiarri erretratua jarritz gero, 5€ gehiago ordaindu behar dira.

ELGOIBARKO MERKATARIENTZAKO OHARRA
LAGUNDUKO AL DIGUZU ELGOIBARKO IZARRAREN TONBOLA OSATZEN?



Aurreko sei urteetan TONBOLAK izan duen estimazioak bultzatuta, aurtien ere abenduaren 24an Elgoibarko Izarraren tonbola jarriko dugu Kalegoen plazan. Tonbola opariz janzteko, baina, zure laguntza behar dugu. Trukean BARRENen eta egunean bertan ere, emango dugu zure eskuzabaltasunaren berri. Opariren bat emateko prest zaudetenekok, deitu **943 744 112** telefono zenbakira edo idatzi **barren@elgoibarkoizarra.eus** posta elektronikora abenduaren 9a baino lehen.

Eskerrik asko!



ROSA M^a PINTADO

Etxaldean Administrazio-Gratu ikasketen arduraduna Alcala de Henaresko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkai eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749

660 969 679
rosapf@telefonica.net

Hiru peora daude gure komunitatean, eta garbiketa enpresa bat kontratatu nahi dugu, hiru peorak eta leku komunak garbitzeko. Jakin nahiko nuke jakiekideon komunitatea egiten al den guk aukeratu dugun enpresa horrek azpikontratatuak zerbitzu enpresak Ogasunarekin eta Gizarte Segurantzarekin dituen zorren erantzule.

Kanpo enpresa baten, enpresari baten edo profesional baten zerbitzuak kontratatzen dituen komunitatea ez da sor daitezkeen lan istripuen erantzule egiten, ezta horrek arriskuak sahiesteko planik izan ezta ere. Eta ez da enpresa horrek bere betebeharrak ez betetzearen kargu egingo, ezta enpresa, profesional edo enpresari horrek Gizarte Segurantzarekin izan ditzakeen arazoaren erantzule egiten ere.

Komunitateak enpresaren zerbitzuak kontratatu ditu, eta enpresarekin du lotura, ez enpresa horrek lan hori egiteko hartu dituen langileekin.

AHOLKUA: Teknikoki ez dago lan azpikontrataziorik, eraikina garbitzea ez delako propio komunitatearen jarduera eta hori egingo duen enpresa kontratatzean komunitateak ez duelako irabazirik ateratzen. Komunitateak egiten duen gauza bakarra zera da: enpresa bat hartu, eraikina egoerarik onenean egon dadin.



AHOLKULARI KOLABORATZAILEA
San Bartolome, 2



Argazkiak eguazten eguerdia (12:00ak) baino lehen ekarri behar dira BARRENeke bulegora, edo barren@elgoibarkoizarra.eus e-postara bidali.



Urtebetetze ospakizuna prest? Guk muxuak eta opariak bai! Zorionak, **Izar!**



Zorionak, **hirukote!** Urria da zuen hilabetea! Oso ondo ospatu genuen. Muxu handi bana!

Erretratu bakarreko agurra: 4'50€.
Argazki bikoitza: 7€. Hirukoitza: 9€. Hiru lagunetik gorako taldeak: 15€

ELGOIBARKO IZARRAKO BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK
Erretratu bakarreko agurra: 3'50€. Argazki bikoitza: 6€. Hirukoitza: 8€.
Hiru lagunetik gorako taldeak: 12€

IKASGO AUREMATRIKULA EPEA ZABALIK 2019-2020

Basarte 13, behea - Elgoibar
akademlaelgoibar@gmail.com

- INGELES ERREFORTZUA
 - CAMBRIDGE AZTERKETAK
 - TALDE TXIKIAK
- 667 261 248**
(Leire)

Jon Aranao
Guillermo Torres

Elgoibar
Albaitaritza

San Roke, 26 - 20870 ELGOIBAR (Gipuzkoa)
Tel.: 943 740 704 - 639 047 337
Astelehenerdik ostirakera: 11:00 - 13:00 / 16:30 - 19:30
Larunbata: 11:00 - 13:00

Inopaindegi zerbitzua daukagu.
Demu ordua hartzeko.



Jarri ezazu zure publizitatea
BARREN astekarian edo
www.barren.eus webgunean

943 744 112

barren.publi@elgoibarkoizarra.eus

BARREN

Kalebarren plaza, 2 - 20870 ELGOIBAR

LAN-DEIALDIA DELINEATZAILE-PROIEKTUGILEA

BALDINTZAK

- ↪ **IKASKETAK:** Ingeniaritza tekniko mekanikoa edo Goi-mailako heziketa zikloa. Espezialitatea: Mekanika.
- ↪ **CAD:** Solid Edge (3D) eta AutoCad (2D).
- ↪ **LAN ESPERIENTZIA:** Eskaintako lanetan edo antzerakoetan aritua izatea, baita txapa diseinuan eta modelaketan ere.
- ↪ **HIZKUNTZAK:** Ingelesa (Hizkuntza Eskola Ofizialeko B2 maila edo First Certificate of Cambridge).
- ↪ Elgoibarren edo inguruan bizitzea.

Interesatuak curriculumak bidali, urriak 31 baino lehen tecnica@cometel.net e-postara.

COMETEL


Pol. Ind. Albitxuri, 8 - 20870 Elgoibar
www.cometel.net

LAGUNAK
colchoneria textil hogar

Bisita gaitzazu!

UDAZKEN ETA NEGUKO OIHAL BILDUMA BERRIA

- Neurrira egiten ditugu estore, gortina eta ohazalak.
- Oihaletan aukera zabala.



San Roke kalea, 20 - Elgoibar - 943 744 457 - 685 756 978 - www.textillagunak.com

18 BARIKUA

17:00 Kiribil. 2 urtetik 6 urtera bitarteko haurrentzat eta haien gurasoentzat. Elgoibarko Izarrak antolatuta, Maalako parkean.

19:00 Debabarreneko gazten kata. Mausitxako ardi gazta eta Mallabiko Axeleku behi gazta. Mutrikuko Sagarminaña baserriko txakolinarekin. Mendaroko Udalak eta Debemenek antolatuta, Goñati frontoian. Doan.

19 ZAPATUA

10:00-15:00 Elgoibarko artisauen feria. Maalako parkean.

18:30 Pepa Calleja eta Mari Jose San Millanen erakusketa ikusteko azken eguna. Kultur Etxeko erakusketa gelan.

20 DOMEKA

12:30 Debabarreneko orfeoia ren kontzertua. San Bartolome parrokian.

16:30 'Erbia eta dordoka' antzerkia. Glu-Glu produkzioak taldeak aurkeztuko du, Herriko Antzokian.

21 ASTELEHENA

18:00 Emakumeentzako jabekuntza tailerra: 'Emakumeak komunikabideetan'. Loredi Salegik gidatuko du saioa. Kultur Etxeko hitzaldi gelan.

23 EGUAZTENA

19:00 Hitzaldia: "Ez dago guraso perfekturik". Amaia Saenz psikologo eta terapeutak eskainiko du, Nuala elkarteak antolatuta. Kultur Etxeko hitzaldi gelan, Ongizate Sailaren laguntzarekin.

25 BARIKUA

20:30 Antzerkia: 'Gagfather, Yllana'. Herriko Antzokian.

21:30 Bideo foruma: 'Una pastelera en Tokio'. Haizeak antolatuta, Loredi Salegik gidatuko du saioa. Kultur Etxeko hitzaldi gelan.

23:00 Kontzertua: Botibol. Sinuösek antolatuta, Kultur Etxeko sotoan.

JARDUNALDI MIKOLOGIKOAK

URRIAK 10, DOMEKA

09:30 Irteera mikologikoa, Morkaikorekin. Mintxetan elkartu eta Aittola aldera abiatuko dira.

URRIAK 21, ASTELEHENA

Perretxikoen inguruko argazki txapelketan parte hartzeko azken eguna. Irabazleak material mikologikoa jasoko du sarritzat. Parte hartzeko, argazkiak hona bidali behar dira: argazkimikologikoa@gmail.com

URRIAK 26, ZAPATUA

Perretxikoen sailkapena, Aranzadiarekin.

URRIAK 27, DOMEKA

11:00 Perretxiko erakusketa, Kultur Etxeko sotoan.

URRIAK 28, ASTELEHENA

Ikastetxeetako ikasleen bisita gidatua.



HERRI ESKOLAKO JAIA

URRIAK 19, ZAPATUA

11:00-13:00 Tailerrak.

12:30-13:30 Herri Kirolak.

14:00 Bazkaria

15:00 Niala magoa



Jose Mari Astorkia Ibarluzea

2019ko urriaren 10ean hil zen, 76 urte zituela. Haren oroimenez meza izango da, domekan, urriaren 20an, 12:30ean, San Lorentzoko ermitan. Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak, bai eta elizkizunera agertu izana ere.



Botika ordutegiak 09:00 - 13:00 / 16:00 - 20:00

GUARDIAK							
Egunez: 09:00-20:00		Iluntzean: 20:00-22:00			Larunbatak: 9:00-14:00 (*)		
18 BARIKUA	19 ZAPATUA	20 DOMEKA	21 ASTELEHENA	22 MARTITZENA	23 EGUAZTENA	24 EGUENA	25 BARIKUA
Egunez *Oruesagasti	Egunez Barrenetxea	Egunez Barrenetxea	Egunez *Ibañez	Egunez Garitaonandia	Egunez Arriola (Lehen Etxeberria)	Egunez *Fernandez	Egunez Yudego
Iluntzean Garitaonandia	Iluntzean Barrenetxea	Iluntzean Barrenetxea	Iluntzean Barrenetxea	Iluntzean Garitaonandia	Iluntzean Arriola (Lehen Etxeberria)	Iluntzean Yudego	Iluntzean Yudego
* Fernandez: Herriko enparantza 4, Garagartza (Mendaro) 943 756 142		* Ibañez: Rekalde, 1 (Soraluze) 943 751 638		* Oruesagasti: Kalebarren, 9 (Soraluze) 943 751 384		Urte guztian, gauetz: 22:00-09:00 Zulueta. San Agustin kalea, 5 (Eibar) 943 820 498	

Zinea (Herriko Antzokian)

‘Érase una vez... Hollywood’

18 barikua: 21:30
19 zapatua: 19:00 / 22:15
20 domeka: 19:00
21 astelehena: 21:30

‘Border’
(Ongarri zinekluba)

24 eguena: 21:30




Jesus Mari Ansuategi Cobo

2019ko urriaren 15ean hil zen, 54 urte zituela.

Zure bizipoza beti eramango dugu geurekin.

Elkar ikusi arte, ‘Antxus’!

Ikastolako lagunak





Iñigo Lamelas

Irati Agirreazaldegi



/ Euskara putzu sakon eta ilun bat zen'... dio kantuak. Zen? Eta orain nolakoa da ba? Ilunetik argira pasatzen saiatu eta sakonetik azalera ateratzen ahalegintzen al gara?

Bai, egiten dugu ahalegina, baina batzuetan nahia izaten da ezina, edo agian, ez dugu egiten behar bezala edo behar adina.

Izan ere, behin entzun nion Iñigo Fernandez Ostolazari, euskararen eta publizitatean aditu denari, nola saldu behar zaion euskara gazteari, eta haren esanetan, oker dabilela dirudien arren, modan dauden gauzak ez dira izaten gazteen elkarrizketen atari.

Gazte bati lakuaren kolore urdineko prakak modan daudelako jantzi behar dituela esanez gero, hori egiterik ez espero, ze kontra egitearren, zero, baietz aukeratu galitza gorriak-edo.

Beraz, esan gutxiago eta gehiago egin beharko da. Ez dugu

esan behar euskara denik moda; euskara erabiltzen duten artista, aktore, musikari zein kirolariak eraman behar zaizkie ondora, ikus dezaten zein hizkuntza eraman behar luketen beraiek ere ahora. Euskaldunak direlako baino gehiago beraien gustuko direlako, arrazoiarekin ohartuko dira beharbada gerora.

Haur eta gazteetatik helduengana, putzuz putzu egiten da salto andana, baina oraindik putzu handiena betetzeko badago lana.

Abestiko putzua (edo nik ikusi dudak argazkiko lakua) bihurtu zen gero itsaso urdin eta zabala. Nik uste dut euskara tanta bakoitza gure ingurukoei saltzen denok egin beharko genukeela eginahala, eta gero, ur-handitara salto egin ala ez, norberak erabaki dezala.

Euskara erabiltzen ez delako triste gaudenon malako garratzen zein ikasten dutenen poz tanten ura etorriko da putzura, eta igerian egingo dugu bakoitzak ahal dugun modura.

“Euskara tanta bakoitza gure ingurukoei saltzen denok egin beharko genuke eginahala, eta gero, ur-handitara salto egin ala ez, norberak erabaki dezala”



Miguel Jose Villanueva Sarasa

2019ko urriaren 12an hil zen, 85 urte zituela. Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak, bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.

**Isiltasunean izan dira
zure lana eta bizitza,
beti izango zara
gure oroimenean eta bihotzean.**

Etxekoak




I. URTEURRENA

Jose Antonio Iriondo Sangroniz

2018ko urriaren 18an hil zen, 77 urte zituela. Haren oroimenez I. urteurreneko meza izango da, zapatuan, urriaren 19an, 19:00etan Elgoibarko Bartolome Deunaren eliz-parrokian. Joango zaretenoi alde zurretik eskerrak.

**Izan zarenagatik
eta erakutsi diguzunagatik
beti izango zara
gure bihotzean.
Maite zaitugu,**

Etxekoak



II. URTEURRENA


Joxe Mari Irusta Larrañaga

1947/04/21 - 2017/10/27

**Sendian, beti maitagarria
ta goxoa izan zera,
lagun artean, umoretsua,
oso argia, gainera.
Arrazoia ta grazia, berriz,
zendun hitzetik hitzera.
Gu agurtuta orain bazoaz
zu atsedena hartzera,
beti izar bat izandakoa
izarrekin elkartzera.**



Haren oroimenez II. urteurreneko meza izango da, zapatuan, urriaren 19an, 19:00etan Elgoibarko Bartolome Deunaren eliz-parrokian. Joango zaretenoi alde zurretik eskerrak.



"PREZIO JUXTUA"

URRIAREN 14TIK 30ERA

ASMATU PREZIOA ETA IRABAZI!!!

Urriaren 14tik 30era herriko saltokietan erosketak egiten dituztenek hartu ahal izango dute parte

Rural Kutxaren bulegoko, erakuslehoan duzue ikusgai produktu sorta.

Erakuslehoan duzuen produktu sortaren preziora gehien gerturatzten denak (pasatu gabe) jasoko du saria.

